# NERE LENENGO MAŔE-IBILKETA

(Gipuzkeraz)

¡Ura aro alaya
Ta ajolikabe
Amabost urte
Niřun garaya!
Gizondu guraz,
Bururatu zat
Andregaitxo bat
Bilatuťia.
Úriřik bertan
Oi-zan, artero
Eřomeri bat
Ezin alaigo.
Juan naiz, bada, apain,
Ta ernai begiya,
Edozein neska
*Zoratzeko* lain.
Alako pozkun
Osagaririk!...
Baño nik bai-nun,
Bai, zer-eginik!
Lagun-dei-otsa
N...n-naiřik dantzut:
Batzubek: «¡aguř!»
Bestek: «¿nora ua?»
Jaramon-ezik,
Duřait auřera,
Jakiz beteta
Mayen aŕtetik;
Ur gozua emen...,
An eřoskila...
*Ni, ordia, ben-ben,*
Andregai-bila!
Aŕkiřuko ez nun
Etsi-zoriyan,
Neska bat dakust
Zuaitz-itzalpian...
Geldiřu nintzan
Eta azteřtu nun:
Matrail goridun
Neska edeřa zan...
Ura aukerako
Emaztia nitzat...!
¿Beste alako bat
Al nun idoro?...
Nere biyotzan
*(Bat-batez, noski)*
Su-gař bat, ezti,
Piztu zitzaidan.
Mingaña ikaraz
*Ta aŕpeyan* lotsa,
Geldi-geldizka,
Ureratu naz.

. . . . . . . . . . . .

—«Matrail goridun
Neska motz ori:
Nere autik entzun
Itz laburtxo bi.»
—«A zein loretxo
Bota didazun...!
Lotsarik ez dun
Mutil-koskortxo...!»
—«Zelai-liřitxo
Lirain apaña...
Gotzon-antzedun
Maiagaŕiya!...»
—«Auxe den mutil
Pařegariya...!»
—...«Estutxo nabil
Andregai-biła...»
—«Ez ba, lariřu,
Maitati ori, aren:
*Bila bai-dezu*
*Andregaya emen:*

Algara zegin
Ori esatian:
Ni pozez, bañan,
Negon, ta atsegin.

. . . . . . . . . . . .

—«Beraz, nerekin,
Dantzara zatoz?...
—«Izerdiz nagoz,
Pizka bat itxon...»

. . . . . . . . . . . .

Ta pare zegin
Nere mintzatzez...,
Ta, noizian-bein,
Zai ba'lego lez,
Atzeko aldera
Begiratzen zun.

. . . . . . . . . . . .

«Uřezko iledun
zoragaŕiya,
Nere *loretxo*,
Nere kuřuna...!
—«(¡Auxen da lana'...
Ez-ote etoriko?...)»
—«*Entzun*, bada *entzun*,
Nere bildotsa...»
—«Edeřki ai zera:
Jardun, bai, jardun.»
—*Tuntuna* asi da:
Dantzara guazen...»

. . . . . . . . . . . .

Ta, alako baten,
Uřuti-antzian:
—«Mantoni, atoz ta,
Dantza gařezen,
Tuntun-jo-*aldiya*
Buka baño len!...»

. . . . . . . . . . . .

Begiratu zun
Deya *dantzunantz*,
Ta esan dit: «agur!
Dantzatzera nua.»
—«¿Nor da ori baño?»
(Galde diyot nik)
—«Nor neu-bijotzeko
Jabia baizik!
*Dantzaz* nekatu
Ta egaři izan da:
Juan danian, zu
Azaldu zera.»
—«*Ta ain benez* esan...
Gezuřti alen bai!!
Zugan andregai
Biła-nubela?...»
—«Ori bai, noski!
*Zeuria ez, baño;*
Mutiltzar sendo
*Ořena baizik...!*
Agur ba, gaste,
Ta eskeř ugari...»
—Iñakaz neri?
Etzaitut mare!!!»

. . . . . . . . . . . .

Ta algara zegin
Ori entzutian...
*Ta arin* baño arin
Juan ziran dantzan!...

—

Ona emen, bada,
Nere lenengo
Zorigabeko
Maře-ibilketa.

SAMANIEGO-ZULO.

# Gastetasunak bai-nerabila

(BENABAREZ)




Gastetasunak bai-nerabila nizian ainhara bezala,
Gabak igazten zait-a! ardura egunak ba'lira bezala,
¡Oi! ¡Ardura nabila maitiagana!

—

—Maite-nauzula zuk erraňaz ni ez naiz alaituten;
Baizikan ere nere bihotza aras duzu alegetzen
¡Oi! ¡Zeren ez nauzun utzitzen!

—

—¡Maitetasunik bai-dudala ez zerauzuya bada iduri?
Itsasua igaran niro zure gatik igeri.
¡Oi! ¡Zeren zaren hain zoragari!

—

—Zoragaŕiya ba-naiz ere ez naintekе izan zure:
Nitaz atsegin direnik beřtzerik ludiyan bai-tire;
¡Oi! Nire ganik urun-zaite.

# EUZKELDUN NESKATILAI

## Atsegin txikijak

Bixitza gauza bena da, neskatil oŕek: lasteŕ ikusiko dozube, zoritxařez. Baña autořtu biař-dogu atsegiñak eta pozak be bai-daukazala. Atsegin eta poz ořek, sari-askotan, geure eskubetan egoten dira. Batzutan geuganatuten doguz; bestetzutan aide-eragiten doguz. Augatik, batzuk poztuten dauzan gauza berberak bestetzuk atsekabetuten dauz.

Jazokunik geyenak atsegingařijak ixan leikiguz, atsegingařitzat aŕtzen ba-dakigu. ¡Zorijontsubak beti umiak ixaten dakijenak! Euren poza zer dan bai-dakije.

Beti atsegin bařijen biła ibiltzen diranak, pozik gitxi aurkiřuten dabe atsegin txikijetan. Pozik bixi-ixaten dakijenak, arau au beteten dabe: *biařkuna lenengo; atsegiña uřengo*.

Bixitza, atsegiñez beterik dago, gura-dabenentzat. Zugatz oritsubak, landara loratsubak, *txoritxu abeslarijak, ixař distiratsubak, naikuak dira* pozaldi andija emoteko. Askotan, baña, atsegin *txiki* onetatik aldenduten gara, lořtu ezin-doguzan beste *andijaguen* biła juateko. Asko dira bidezkunde luze-luziak egiřeko, Abeřitik uřun, eři ařotzak ikusteko gura-guratsu egoten diranak. Eta Abeři-bařuban egin leitekezan bidezkunde polit-atsegingařijak egiten eztakije. Urijan bixi-ixanda, mendira urteten eztakije. Abeřijan dagozan landa-zelai oŕlegijak, mendi jagijak, ařu sakonak, bazteř ospetsubak, toki maiagařijak eztabez ezautzen. Onek atsegin txatxařak dira eurentzat, *atsegin txikijak*.

Baña janzkijetan eta onelako uskerijetan *atsegin andijak* ixaten dira.

Neskatil maře ořek: zuben duñak eztiran uskeri gustijetatik aldendu zařeze; baña bide-onduan *aurkiřuko dozubezan lora apal-usaintsubak* ez ezetsi. Lora onek *atsegin txikijak* dira, bixitz ben eta latz au arindu ta poztuten dabenak.

Gustijok dogu nor maře-ixan, nori on-egin. Mate ta on-egin dagitsegun gutařai.

Eři gustijetan eguzkijak argi egiten dau. Geurian be, euzkeldun neskatil ořek. Maře-daigun, ba, geure eři au; bertan atsegin txikijak bilatzen jakin daigun. Batzubentzat *txikijak*: guretzako *andi-andijak*.

ETXAKIN.